

Lanbide eta enpresa zerbitzuen gainerako inkesta (2009)

Lanbide eta enpresa zerbitzuak Euskal AEn sortutako aberastasunaren %8,3 izan ziren 2009an

Jarduera horien enplegua guztizko okupazioaren %12,2 izan zen

Lanbide eta enpresa zerbitzuek, normalean "enpresetarako zerbitzuak" deituek 4.879 milioiko balio erantsi gordina sortu zuten 2009an, eta haien okupazioa 119.616 enplegu ziren Eustaten datuen arabera.

Zerbitzu hauen ekarpena Euskal AEko balio erantsi gordinaren %8,3 eta enpleguaren %12,2 izan zen 2009an.

1. taula: Lanbide eta Enpresa zerbitzuen sektorearen aldagai nagusiak jarduera adarren arabera. Euskal AE (Mila €) 2009

Uneko prezioak	Pertsonal okupatua	Faktore-kostuaren balio erantsi gordina	Negoio zifraren zenbatekoa guztira
Guztira	119.616	4.878.697	8.647.674
Jarduera juridiko eta kontabilitatekoak	22.721	1.309.737	2.238.247
Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzuak	19.030	1.103.548	2.217.697
Ikerketa eta garapena	6.095	359.412	350.970
Publizitatea eta merkatu azterlanak	6.124	271.920	586.601
Beste jarduerak profesionalak	5.852	205.365	354.942
Alokairu jarduerak	3.432	214.007	465.764
Enpleguarekin uztartutako jarduerak	8.400	186.275	211.190
Bidai agentziak	2.344	82.695	799.595
Bestelako zerbitzu-jarduerak	45.618	1.145.738	1.422.668

Iturria: EUSTAT. Lanbide eta enpresa zerbitzuen gainerako inkesta

Pertsonako balio erantsia, enpresetarako zerbitzuen multzorako, 40.786 euro izan ziren 2009an eta egindako salmentak, pertsonako, 72.295 euro; ratio hauek aldatu egiten dira adar batetik bestera.

Alokairu-jarduerak sektorearen balio erantsi guztiaren %4,4 sortu zuten; enpresetarako zerbitzuen enpleguaren %2,9 dira. Pertsonako balio erantsia: 62.356 euro. Pertsonako salmentak: 135.712 euro.

Balio erantsiari dagokionez kontrako muturrean Enpleguarekin erlazionatutako jardueren sektorea dago: sektoreko enpleguaren %7,0 eta balio erantsiaren %3,8, pertsonako balio erantsia 22.176 euro direlarik.

Pertsonako salmenta-bolumena: Bidai agentzien sektorean 341.124 euro; Enpleguarekin erlazionatutako jarduerenean 25.142 euro.

Zerbitzuen beste jarduerak 45.618 pertsona enplegatzen zituzten, guztiaren %38,1. Sektore honen barruan lan-esku intentsibodun jarduerak daude: segurtasuna, garbiketa, landare-zaintza, dei-zentroak. Sektore honen pertsonako salmentak: 31.187 euro.

Kopuru absolutuetan, hona hemen balio erantsi handieneko adarrak: Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak (1.310 milioi), Zerbitzuen beste jarduerak (1.146), Arkitektura eta Ingeniaritza (1.104). 3 sektore hauek balio erantsi guztiaren %73 sortu zuten.

Sektore honek sortutako aberastasunaren %37,3 enpresa-soberakina izan zen eta gainerako %62,7 langile-kostuak.

Ekitaldiaren emaitza globala: 1.636 milioi euro; negozio-zifraren kopuru garbia: 8.648 milioi. Ekitaldi-emaitza bolumen handienekoak, kopuru absolutuetan: Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak (799 milioi); Arkitektura eta Ingeniaritza zerbitzuak (445); Zerbitzuen beste jarduerak (150). Kontrako muturrean, bolumen txikienak: Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (8,7 milioi) eta Bidai agentziak (9,8).

Ekitaldi-emaitzak okupatutako pertsona kopuruaren arabera erlatibizatuz gero, berriz ere Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak (35.164 euro pertsonako) eta Arkitektura eta Ingeniaritza (23.381) ditugu. Beste muturrean Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (1.037 euro okupatuko) eta Zerbitzuen beste jarduerak (3.286) daude.

Bizkaiak Euskal AE osoan sektorean enplegatutako pertsonen %58,2 zituen; Gipuzkoak %27,2 eta Arabak %14,6. Balio erantsiaren banaketa: Gipuzkoak %26,4, Bizkaiak %59,7, Arabak %14,0.

2. taula: Lanbide eta Enpresa zerbitzuen sektorearen aldagai nagusiak lurraldearen arabera. (Mila €) 2009

Uneko prezioak	Euskal AE	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Personal ocupado (kopurua)	119.616	17.425	69.599	32.592
Faktore-kostuaren balio erantsi gordina	4.878.697	680.608	2.912.333	1.285.756
Ustiapeneko soberakin gordina	1.818.020	241.127	1.089.758	487.135
Inbertsioa	198.796	27.165	107.839	63.792
Amortizazioa	322.487	39.477	197.697	85.313
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	8.647.674	1.127.219	5.450.216	2.070.239
Pertsonal gastuak	3.060.677	439.481	1.822.575	798.621
Ekitaldiaren emaitza	1.635.731	299.099	924.791	411.841

Iturria: EUSTAT. Lanbide eta enpresa zerbitzuen gaineko inkesta

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Aitor Oleaga

Tel:+34-945-01 75 09 Fax:+34-945-01 75 01

[Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen Inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Lanbide eta enpresa zerbitzuen gaineko inkesta/ datu-bankua](#)